# KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

Auditore Independente batek emandako urteko kontu laburtuen ikuskaritza txostena
2019ko abenduaren 31koa

LKS

**LKS AUDITORES, S. L. P.**
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

# IKUSKARITZA TXOSTENA

**KURSAAL ELKARGUNEA, S.A. Sozietateko akziodunei:**

## *Iritzia*

KURSAAL ELKARGUNEA, S.Aren (Sozietatearen) urteko kontu laburtuen ikuskaritza egin dugu. Bertan, hauek sartu ditugu: 2019ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, eta egun horretan amaitutako ekitaldiaren memoria.

Gure iritziz, honekin batera doazen urteko kontu laburtuek, alderdi esanguratsu guztietan, honako hauek islatzen dituzte, zorroztasunez: Sozietateak 2019ko abenduaren 31n zituen ondarea eta egoera finantzarioa, haren eragiketen emaitzak eta egun horretan bukatutako ekitaldian ondare garbian izandako. Horiek guztiek aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak (oroitidazkiaren 2.a oharrean identifikatuta daudenak) eta horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta - jarraibideak betetzen dituzte.

## *Iritzia emateko oinarria*

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen eta kontu-ikuskaritzak arautzen dituen arautegian oinarritu gara. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak ondoren deskribatuko ditugu, gure txosteneko Urteko kontu laburtuen ikuskaritza-txostenean auditoreak duen erantzukizuna atalean.

Sozietatetik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan erabili beharreko etika-eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna ere barnean sartuta), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz beste zerbitzurik eskaini eta ez da beste egoera edo gorabeherarik gertatu, aipaturiko araudiaren arabera eduki behar den ezinbesteko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak nahikoa oinarri egokia ematen du, gure auditoretza-iritzia emateko.

Inscrita en el Registro mercantil de Gipuzkoa en el Tomo 1167, folio 46, hoja SS-3389, Inscripción 1ª • C.I.F.: B-20419701
Inscrita en el ROAC con el nº s1054 y en el Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España con el nº 507.

***Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak***

Zera dira auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi horretako urteko kontu laburtuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik esanguratsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu dira gure urteko kontu laburtuen auditoretzan eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia. Hala, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

*Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balioespena eta aurkezpena*

*Azalpena*
Sozietateak 34.249.522,87 euroko ibilgetu ukiezina eta materiala du erregistraturik bere balantze laburtuan, 2019ko abenduaren 31n, amortizaziorik eta narriadurarik gabe. Ibilgetu hori Kursaal eraikina, haren instalazioak eta ekipamendua eta azala erabiltzeko eskubidea erosteko kostuari dagokio. Horiek beren balio-bizitza estimatuaren eta sinatutako kontratuen iraunaldiaren arabera amortizatzen dira. Ibilgetu ukiezinari eta materialari buruzko informazio adierazgarria memoria laburtu honetako 4.a), 4.b), 4.c), 5. eta 6. oharretan ageri da.

Aipatutako epigrafeak aztertzea zeregin handia izan da auditoria honetan, aktibo osoaren ehuneko 82,18 hartzen baitute.

*Gure erantzuna*
Gure auditoria-lanaren zati bat izan da honako hauek aztertzea: ibilgetuaren elementuei buruzko informazioa eta aurkezpena urteko kontu laburtuetan; haien amortizazioa, esleitutako balio-bizitzaren arabera, sozietateak erresgistratu duen urteko amortizazio gastua berriz kalkulatu, ekitaldian erositako elementu berrien aktibazioa; eta ekitaldian izandako bajak.

Egindako prozeduren arabera, kontabilitatea eta urteko kontuetan ageri den informazioaren banaketa, ibilgetu materiala eta ukiezinari buruz, zentzuzkoa eta koherentea dela uste dugu.

***Bestelako informazioa: Kudeaketa-txostena***

Bestelako informazioa atalean, 2019ko ekitaldiko kudeaketa-txostena soilik jaso da. Sozietateen administratzaileen erantzukizuna da hori formulatzea, eta ez da urteko kontu laburtuetan sartzen.

Urteko kontu laburtuen gure auditoretza-iritziak ez du kudeaketa-txostena kontuan hartzen. Kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiak eskatutakoarekin bat, hauxe da kudeaketa- txostenean dugun erantzukizuna: kudeaketa-txostena urteko kontu laburtuekin bat datorren ebaluatzea eta horren berri ematea, aipaturiko kontuen ikuskaritza egitean erakundeari buruz eskuratu dugun ezagutza kontuan hartuta, baina jardun hori egitean ebidentziatzat lortutakoaz beste informaziorik erantsi gabe. Era berean, gure erantzukizuna da kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena ezarri beharreko araudiarekin bat datorren ebaluatu eta jakinaraztea. Egin dugun lanean oinarrituta, akats materialen bat dagoela ondorioztatzen badugu, horren berri emateko betebeharra dugu.

Aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera egindako lanean oinarrituta, kudeaketa-txostenean dagoen informazioa bat dator 2019(e)ko ekitaldiko urteko kontu laburtuekin. Orobat, urteko kontu laburtuen edukia eta aurkezpena bat datoz ezarri beharreko araudiarekin.

***Urteko kontu laburtuen inguruan administratzaileek duten erantzukizuna***

Honekin batera doazen urteko kontu laburtuak formulatzea administratzaileen ardura da, eta Sozietatearen ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorroztasunez, Espainian erakundeari aplikatzekoa zaion finantza-informaziorako arauei eta urteko kontu laburtuak iruzurren edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen ardura da Sozietateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna baloratzea. Dagokionean, jarduneko enpresari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta administratzaileek sozietatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistarik ez badago.

***Auditorearen erantzukizuna urteko kontu laburtuen auditoretzaren harira***

Gure helburuak: urte kontuek, osotasunean, hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutelako arrazoizko segurtasuna lortzea, eta gure iritzia jasotzen duen ikuskaritza- txostena ematea. Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da baina, halere, ez du bermatzen Espainian ikuskaritza-jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoretzak beti antzemango duenik akats materialen bat, baldin eta halakorik badago. Akatsak hutsegiteen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke eta akats materialtzat jotzen dira baldin eta, banaka edo batuta, eta urteko kontu laburtuetan oinarrituta, erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragin dezaketen arrazoizko ustea badago.

Espainian kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu ikuskaritza osoan. Eta, horrekin batera:

- Urteko kontu laburtuetan hutsegite baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia emateko oinarria eskuratzeko auditoretza-ebidentziak lortzen ditugu. Iruzurraren ondoriozko akats materialik ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materialik ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin erka dezake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Erakundearen barne-kontrol esanguratsuaren inguruko ezagutza eskuratzen dugu, baina ez barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, baizik eta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko.

- Erabiltzen dituzten kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-balioespenak arrazoizkoak diren ebaluatzen dugu, administratzaileek emandako informazioa aztertuta.

- Administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa zuzen erabiltzen ote duten ondorioztatzen dugu eta, eskuratutako auditoretza-ebidentzia oinarri hartuta, Sozietateak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ote dagoen ebazten dugu. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, gure ikuskaritza-txostenean urteko kontu laburtuetan azalerazi den informazioari buruz ohartarazteko betebeharra dugu. Eta, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Gure ondorioak ikuskaritza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Dena dela, gerta daiteke ikuskaritza-txostena egin eta gerorako gertaerek edo baldintzek eragitea Sozietatea jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.

- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioabarne, eta aztertu egiten dugu urteko kontu laburtuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten, Sozietatearen benetako irudia adierazteko moduan.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko, bai eta auditoretzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi dizkiegun arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

**LKS AUDITORES, S.L.P.**
ROAC zenbakia: S1054

**Mª Mercedes Pascual Maestre**
ROAC zenbakia: 18.942
2020ko ekainaren 25ean

AUDITORES
INSTITUTO DE CENSORES JURADOS DE CUENTAS DE ESPAÑA

LKS AUDITORES, S.L.P.

2020 Núm.03/20/03369

Informe de auditoría de cuentas sujeto a la normativa de auditoría de cuentas española o internacional

# CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

## 2019ko ABENDUAREN 31ra ARTEKO

## URTEKO KONTU LABURTUAK

## ETA 2019ko EKITALDIARI DAGOKION

## KUDEAKETA-TXOSTENA

## CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.
## 2019ko ETA 2018ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE LABURTUAK
(eurotan)

| AKTIBOA | 2019/12/31 | 2018/12/31 | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2019/12/31 | 2018/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|
| **A) AKTIBO EZ-KORRONTEA** | **34.252.333,68** | **35.517.945,95** | **A) ONDARE GARBIA** | **33.172.133,47** | **32.536.356,82** |
| | | | A-1) FUNTS PROPIOAK | **19.873.212,63** | **19.336.172,12** |
| I. Ibilgetu immateriala (5. oharra) | **1.836.100,84** | **1.911.567,44** | I. Kapitala (9. oharra) | 10.211.500,00 | 9.612.200,00 |
| | | | 1. Kapital eskrituratua | 10.211.500,00 | 9.612.200,00 |
| II. Ibilgetu materiala (6. oharra) | **32.413.422,03** | **33.603.567,70** | | | |
| | | | II. Jaulkipen-prima | **13.053.982,90** | **13.053.982,90** |
| III. Epe luzerako finantza-inbertsioak | **2.810,81** | **2.810,81** | | | |
| | | | III. Erreserbak | **1.805.784,76** | **1.799.705,06** |
| | | | IV. Aurreko ekitaldietako emaitzak | **(5.135.795,24)** | **(5.190.512,52)** |
| | | | V. Ekitaldiko emaitza | **(62.259,79)** | **60.796,68** |
| | | | A-2 ) JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK (12. oharra) | **13.298.920,84** | **13.200.184,70** |
| | | | **B) PASIBO EZ-KORRONTEA** | **5.487.107,51** | **6.404.301,29** |
| | | | I. Epe luzerako zorrak (8. oharra) | **40.804,32** | **42.127,51** |
| | | | 1. Beste pasibo finantzario batzuk | 40.804,32 | 42.127,51 |
| | | | II. Zerga geroratuen pasiboak (12. oharra) | **3.324.730,22** | **4.168.479,37** |
| | | | III. Epe luzerako periodifikazioak (8. oharra) | **2.121.572,97** | **2.193.694,41** |
| **B) AKTIBO KORRONTEA** | **7.421.744,85** | **5.867.742,60** | **C) PASIBO KORRONTEA** | **3.014.837,55** | **2.445.030,44** |
| I. Merkataritza-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk (7. oharra) | **1.724.577,39** | **892.859,84** | I. Epe laburrerako zorrak (8. oharra) | **1.567.505,75** | **968.101,67** |
| 1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik | 1.675.663,11 | 768.878,75 | 1. Beste pasibo finantzario batzuk | 1.567.505,75 | 968.101,67 |
| 2. Bestelako zordunak | 48.914,28 | 123.981,09 | | | |
| | | | II. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk (8. oharra) | **1.408.554,52** | **1.423.418,37** |
| II. Epe laburrerako periodifikazioak | **90.932,04** | **39.570,81** | 1. Hornitzaileak | 1.072.706,75 | 1.075.759,29 |
| | | | 2. Bestelako hartzekodunak | 335.847,77 | 347.659,08 |
| III. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak (7. oharra) | **5.606.235,42** | **4.935.311,95** | | | |
| | | | III. Epe laburrerako periodifikazioak | **38.777,28** | **53.510,40** |
| **AKTIBOA, GUZTIRA** | **41.674.078,53** | **41.385.688,55** | **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA** | **41.674.078,53** | **41.385.688,55** |

Erantsitako memoria laburtuko 1.etik 16.era bitarteko oharrak 2019ko eta 2018ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuen zati dira.

Donostian, 2020ko ekainaren 24an

## CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.
## 2019ko ETA 2018ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIEI
### DAGOZKIEN GALDU-IRABAZIEN KONTU LABURTUAK
(eurotan)

| | 2019/12/31 | 2018/12/31 |
|---|---|---|
| **ERAGIKETA JARRAITUAK** | | |
| 1. Negozio-zifraren zenbateko garbia (11a oharra) | **5.083.873,97** | **4.761.989,78** |
| 2. Hornikuntzak (11b oharra) | **(2.461.328,68)** | **(2.016.828,30)** |
| 3. Bestelako ustiapen-sarrerak | **1.122.996,15** | **1.073.879,16** |
| 4. Pertsonal-gastuak (13. oharra) | **(1.027.187,57)** | **(927.625,04)** |
| a) Soldatak, lansariak eta antzekoak | (786.058,84) | (712.370,13) |
| b) Karga sozialak | (241.128,73) | (215.254,91) |
| 5. Bestelako ustiapen-gastuak (11c oharra) | **(1.846.244,73)** | **(1.895.398,67)** |
| 6. Ibilgetuaren amortizazioa (5. eta 6. oharrak) | **(1.678.640,50)** | **(1.683.762,23)** |
| 7. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena (12. oharra) | **745.013,01** | **794.402,48** |
| 8. Ibilgetua besterentzeagatiko balio-narriadura eta emaitza | **(741,44)** | **(45.860,50)** |
| **A) USTIAPENAREN EMAITZA** | **(62.259,79)** | **60.796,68** |
| 9. Diru-sarrera finantzarioak | | |
| 10.Gastu finantziarioak | | |
| **B) EMAITZA FINANTZARIOA** | | |
| **C) ZERGA AURREKO EMAITZA** | **(62.259,79)** | **60.796,68** |
| **D) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA** | **(62.259,79)** | **60.796,68** |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | **(62.259,79)** | **60.796,68** |

Erantsitako memoria laburtuko 1.etik 16.era bitarteko oharrak 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu laburtuen zati dira.

Donostian, 2020ko ekainaren 24an

# CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

## 2019ko ETA 2018eko ABENDUAREN 31n IZANDAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK ERAKUSTEKO ORRI LABURTUAK

### A) 2019ko ETA 2018eko ABENDUAREN 31ko ONARTUTAKO DIRU-SARREREN ETA GASTUEN ORRI LABURTUAK

(eurotan)

| | Memoriari buruzko oharrak | 2019ko ekitaldia | 2018ko ekitaldia |
|---|---|---|---|
| A) Galdu-irabazien kontuaren emaitza | | (62.259,79) | 60.796,68 |
| Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak | | | |
| I. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | (12. oharra) | 0,00 | 0,00 |
| II. Zerga-efektua | | 694.746,56 | 0,00 |
| B) Zuzenean ondare garbiari egotzitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira (I + II) | | 694.746,56 | 0,00 |
| Galdu-irabazien konturako transferentziak | | | |
| III. Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | (12. oharra) | (745.013,01) | (794.402,48) |
| IV. Zerga-efektua | | 149.002,60 | 190.656,60 |
| C) Galdu-irabazien konturako transferentziak, guztira (III + IV) | | (596.010,41) | (603.745,88) |
| ONARTUTAKO DIRU-SARRERAK ETA GASTUAK, GUZTIRA (A + B + C) | | 36.476,36 | (542.949,20) |

Erantsitako memoria laburtuko 1.etik 16.era bitarteko oharrak 2019ko eta 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako diru-sarreren eta gastuen orri laburtuen zati dira.

Donostian, 2020ko ekainaren 24an

# CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

## B) 2019ko ETA 2018eko EKITALDIETAN IZANDAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK ERAKUSTEKO ORRI LABURTUA, GUZTIRA

(eurotan)

| | Kapitala | Jaulkipen-prima | Legezko erreserbak | Borondatezko erreserbak | Euroa biribiltzeagatiko erreserba | Aurreko ekitaldietako emaitza | Ekitaldiko emaitza | Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **A. 2016ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA** | 8.812.700,00 | 13.053.982,90 | 234.024,27 | 1.565.523,43 | 157,36 | (4.952.070,85) | (238.441,67) | 13.803.930,58 | 32.279.806,02 |
| **B. 2017eko EKITALDIAREN HASIERAKO SALDO DOITUA** | 8.812.700,00 | 13.053.982,90 | 234.024,27 | 1.565.523,43 | 157,36 | (4.952.070,85) | (238.441,67) | 13.803.930,58 | 32.279.806,02 |
| **I. Onartutako diru-sarrerak eta gastuak, guztira** | - | - | - | - | - | - | 60.796,68 | (603.745,88) | (542.949,20) |
| **II. Ondare garbiaren bestelako aldaketak** | 799.500,00 | - | - | - | - | (238.441,67) | 238.441,67 | - | 799.500,00 |
| **C. 2017eko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA** | 9.612.200,00 | 13.053.982,90 | 234.024,27 | 1.565.523,43 | 157,36 | (5.190.512,52) | 60.796,68 | 13.200.184,70 | 32.536.356,82 |
| **D. 2018ko EKITALDIAREN HASIERAKO SALDO DOITUA** | 9.612.200,00 | 13.053.982,90 | 234.024,27 | 1.565.523,43 | 157,36 | (5.190.512,52) | 60.796,68 | 13.200.184,70 | 32.536.356,82 |
| **I. Onartutako diru-sarrerak eta gastuak, guztira** | - | - | - | - | - | - | (62.259,79) | 98.736,14 | 36.476,35 |
| **II. Ondare garbiaren bestelako aldaketak** | 599.300,00 | - | 6.079,70 | - | - | 54.716,98 | (60.796,68) | - | 599.300,00 |
| **E. 2017ko EKITALDIKO AMAIERAKO SALDOA** | 10.211.500,00 | 13.053.982,90 | 240.103,97 | 1.565.523,43 | 157,36 | (5.135.795,54) | (62.259,79) | 13.298.920,84 | 33.172.133,17 |

Erantsitako memoria laburtuko 1.etik 16.era bitarteko oharrak 2019ko eta 2018eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan izandako ondare garbiaren aldaketak erakusteko orri laburtu osoaren zati dira.

Donostian, 2020ko ekainaren 24an

# CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A.

## 2019ko ABENDUAREN 31n AMAITUTAKO EKITALDIARI DAGOKION MEMORIA

### 1.- SOZIETATEAREN JARDUERA.-

CENTRO KURSAAL - KURSAAL ELKARGUNEA, S.A. (aurrerantzean, sozietatea edo KURSAAL ELKARGUNEA) 1994ko irailaren 14ko eskritura publikoaren bidez eratu zen, epemugarik gabe. Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eratu zuten sozietatea, eta hein berean parte hartzen zuten kapital sozialean. Gaur egun, ordea, Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak soilik parte hartzen dute, zati berdinetan.

1996ko uztailaren 16an, sozietatearen Ezohiko Batzar Nagusiak aho batez erabaki zuen eratze-eskrituran ezarritako sozietatearen helburua aldatzea eta, horrela, Donostiako auditorioa eta biltzar-jauregia eraikitzea, sustatzea eta kudeatzea, baita eraikinak egitetik sortutako instalazio guztiak ustiatzea eta auditorio eta biltzar-jauregi gisa dagozkion jarduerak egitea ere.

Sozietatea sortu zenetik Elkargunea inauguratu zen arte (1999ko abuztuan), Elkargunea kudeatzera eta eraikitzera eta proiektua sustatzera mugatu zen jarduera. Data horretatik aurrera hasi zen Elkargunea auditorio eta biltzar-jauregi gisa ustiatzeko jarduera.

Sozietatearen helburua da Donostiako auditorioa eta biltzar-jauregia eraikitzea, sustatzea eta kudeatzea, baita eraikinak egitetik sortutako instalazio guztiak ustiatzea eta auditorio eta biltzar-jauregi gisa dagozkion jarduerak egitea ere.

Horretaz gain, 2013ko abenduaren 5etik, sozietatearen helburua ere bada kultura-jarduerak bere instalazioetan sustatzea, euskal kulturako berezko kultura-adierazpenak eskaintzea, eta euskal kulturaren irudia egokiagoa izan dadin ahalbidetzea.

Sozietateak Donostian du egoitza (Zurriola hiribidea, 1).

Sozietatearen jarduera ikusita, ez dago ingurumenarekin zerikusia duen eta sozietatearen ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez esanguratsua izan daitekeen erantzukizun, gastu, aktibo, zuzkidura edo kontingentziarik. Hori dela eta, urteko kontuen memoria honetan ez da berariaz banakatu ingurumeneko gaiei buruzko informazioa.

Indarreko legeriaren arabera, 2019ko eta 2018eko abenduaren 31n sozietateak ez ditu zertan egin urteko kontu bateratuak, Merkataritzako Kodearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Urteko kontu laburtu hauek eurotan daude, euroa delako sozietateak dihardduen ingurune ekonomikoko moneta.

## 2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK.-

### a) Sozietateari aplikagarria zaion finantza-informazioaren arau-esparrua

Administratzaileek egin dituzte urteko kontu laburtu hauek, sozietateari aplikagarria zaion finantza-informazioaren arau-esparruari jarraikiz. Hauek osatzen dute arau-esparru hori:

a. Merkataritzako Kodea eta merkataritzako gainerako legeria.
b. Kapital Sozietateen Legearen testu bategina.
c. Kontabilitateko Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua, eta haren ondorengo aldaketak.
d. Kontabilitateko Plan Orokorra garatzeko Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak onartu dituen eta nahitaez bete beharrekoak diren arauak eta haien arau osagarriak.
e. Aplikagarriak diren Espainiako kontabilitateko gainerako arauak.

**b) Irudi leiala**

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak sozietatearen kontabilitateko erregistroetan oinarrituta prestatu dira, eta, haiek aurkezteko, sozietateari aplikagarria zaion finantza-informazioaren arau-esparrua hartu da aintzat, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipioak eta irizpideak. Hortaz, kontuek sozietatearen ekitaldi horretako ondarearen, finantza-egoeraren eta eragiketen emaitzen irudi leiala erakusten dute.

Esan bezala, sozietatearen administratzaileek prestatu dituzte urteko kontu laburtu hauek, eta martxoan aurkeztuko dira Akziodunen Batzar Nagusian, onar daitezen. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko direla uste da.

Ez dago salbuespenezko arrazoirik irudi leiala erakustearren kontabilitateko legezko xedapenak aplikatu ez izateko.

**c) Kontabilitateko printzipioak**

Dokumentu hauetan jasotako kontabilitateko printzipio eta jardunbideak aplikatu dira urteko kontu laburtuak prestatzeko: Merkataritzako Kodea; Kapital Sozietateen indarreko Legea; eta Kontabilitateko Plan Orokorra, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua, baita Planari ondoren egin zaizkion aldaketak ere. Urteko kontu laburtuak prestatzerakoan, nahitaez aplikatu behar diren eta eragin nabarmena izan dezaketen kontabilitateko printzipio guztiak aplikatu dira.

**d) Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi erabakigarriak**

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioari jarraikiz prestatu ditu sozietateak urteko kontuak. Ez dago inolako arrisku garrantzitsurik hurrengo ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioa nabarmen alda dezakeenik.

**e) Informazioaren konparazioa**

Ez dago salbuespenezko arrazoirik 2019ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak aurreko ekitaldikoekin konparatzea eragozten duenik.

**f) Urteko kontu laburtuak**

Sozietateak betetzen ditu Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 257. eta 258. artikuluetan ezarritako baldintzak; hortaz, ahalmena du balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketak erakusteko orria eta memoria egiteko, betiere, laburtuak. Ondare garbiaren aldaketak erakusteko orria ez da nahitaezkoa.

**g) Kontabilitateko irizpideen aldaketak**

2019ko ekitaldian ez da aldaketa nabarmenik izan kontabilitateko irizpideetan, 2018eko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta.

**h) Informazioaren ardura**

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak du urteko kontu laburtu hauetan jasotako informazioaren ardura.

**i) Akatsen zuzenketa**

Urteko kontu laburtuak egiterakoan ez da hauteman 2018eko ekitaldiko urteko kontu laburtuetan jasotako zenbatekoak berridatzi beharra eragin duen inolako akats nabarmenik.

## 3.- EMAITZEN BANAKETA.-

2019ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena aurkeztuko diote administratzaileek sozietateko Akziodunen Batzar Nagusiari, onar dezan. Hona hemen banaketa-proposamen hori, eurotan, 2018eko ekitaldirako onartutakoarekin batera:

| | 2019 | 2018 |
|---|---|---|
| Legezko Erreserba | | 6.079,70 |
| Aurreko ekitaldietako galerak | (62.259,79) | 54.717,28 |
| **Ekitaldiko emaitza (galerak)** | **(62.259,79)** | **60.796,98** |

## 4.- ERREGISTRO- ETA BALORAZIO-ARAUAK.-

Kontabilitateko irizpide hauek aplikatu dira partida garrantzitsuenetan:

### a) Ibilgetu immateriala

Aktibo immaterialen kasuan, eskuratze-kostua erregistratzen da hasieran, baina, haiek baloratzerakoan, zer kostu duten hartzen da kontuan; alegia, dagokien amortizazio metatua eta, izanez gero, narriaduragatiko galerak kenduta.

Sozietateak kontabilitatean erregistratzen ditu narriadurak aktiboen balioan eragin izan ditzakeen galera guztiak, eta, horretarako, galdu-irabazien kontuko «Narriaduragatiko galera garbiak» epigrafea erabiltzen du kontrapartida gisa. Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, hala badagokio, aurreko ekitaldietan erregistratu diren narriaduragatiko galeren berreskuratzeak erregistratzeko irizpideak aktibo materialen kasuan aplikatutakoen antzekoak dira. Ekitaldi hauetan ez da erregistratu narriaduragatiko galera garbirik aktibo immaterialei dagokienez.

*I Lurzoruaren gaineko eskubideak*

Sozietateak eraikina egiteko erabili duen lursaila Donostiako Udalarena da, eta sozietateak 50 urtez erabil dezake. Linealki amortizatzen da, erabiltzeko eskubideak dirauen bitartean.

*II Jabetza industriala*

Markak erregistratzeagatiko gastuak baloratzerakoan, eskuratze-kostua hartzen da kontuan, dagokion amortizazio metatua kenduta. Amortizazio metatua metodo linealaren arabera kalkulatzen da, marken bizitza baliagarri zenbatetsian zehar (10 urte).

*III Aplikazio informatikoak*

Sozietatea kudeatzeko oinarrizko sistema informatikoei dagozkien eskuratze- eta garapen-kostuak dira. Aplikazio informatikoak linealki amortizatzen dira, lau urteko epean, aplikazio bakoitza ustiatzen hasten denetik hasita.

Sistema informatikoak mantentzeagatiko kostuak dagokien ekitaldiko emaitzei egozten zaizkie.

**b) Ibilgetu materiala**

Ibilgetu materialeko ondasunak baloratzerakoan, eskuratze-kostua hartzen da kontuan; alegia, dagokien amortizazio metatua eta, izanez gero, narriaduragatiko galerak (4c oharra) kenduta. Elementu bakoitza eskuratzeagatik ordaindutako prezioaz gain, kostuak barnean hartzen ditu, baita ere, aktiboak eraikitzeari zuzenean egotz dakizkiokeen eta eraikuntza-aldian sortu diren finantza-gastuak, baldin eta denboraldi bat igaro behar bada aktibo horiek erabiltzeko prest egoteko. Azken ekitaldietan ez da aktibatu zenbatekorik kontzeptu honetan.

Elementu osoen ordezkapenak edo berrikuntzak eta ondasunaren bizitza baliagarria, produktibitatea nahiz ahalmen ekonomikoa handitzen duten zabaltze-, modernizazio- edo hobekuntza-kostuak kontabilizatzean, ibilgetu materialaren zenbateko handiena hartzen da kontuan, eta ordezkatutako edo berritutako elementuak kontabilitatetik kentzen dira.

Aldizkako mantentze-, kontserbazio- eta konponketa-gastuak emaitzei egozten zaizkie, sortzapen-printzipioari jarraikiz, dagokien ekitaldiko kostu gisa.

Sozietateak ez du aktiboko ondasunak eraisteko, kentzeko edo berreskuratzeko konpromisorik. Hori dela eta, aktiboetan ez da kontabilizatu etorkizuneko betebehar horiek estaltzeko baliorik.

Martxan jarri zenetik amortizatzen du sozietateak bere ibilgetu materiala. Horretarako, metodo lineala aplikatzen zaio aktiboen eskuratze-kostuari, hondar-balioa alde batera utzita (baldin badute). 1999ko irailaren 1ean jarri zen martxan auditorioa eta biltzar-jauregia; une horretan eman zen amaitutzat obra, eta orduan hasi zen haren amortizazio-aldia.

Ibilgetuaren amortizazioa egiteko, metodo linealari jarraitzen zaio. Horrela, urteko portzentaje bat aplikatzen da, xehetasun honen araberako bizitza baliagarri zenbatetsia kontuan hartzearen ondoriozkoa:

| | Batez besteko bizitza baliagarri zenbatetsia (urteak) |
|---|---|
| Eraikinak | 33-50 |
| Instalazio teknikoak eta makinak | 10-20 |
| Beste instalazio batzuk, erremintak eta altzariak | 10 |
| Bestelako ibilgetua | 4 |

Ibilgetu materialaren narriaduragatiko balio-zuzenketak eta balio-narriaduragatiko galeren itzulketak ebaluatzeko eta zehazteko, 4c) oharrean («Aktibo ez-finantzarioen balioaren narriadura») aipatzen diren irizpideak aplikatzen ditu sozietateak.

Aktibo bat besterendu edo kentzearen ondoriozko mozkina edo galera kalkulatzeko, salmentaren mozkinaren eta aktiboaren kontabilitateko zenbatekoaren arteko diferentzia hartzen da kontuan, eta galdu-irabazien kontuan erregistratzen da.

**c) Aktiboen balioa narriatzea**

Ekitaldi bakoitza ixtean, sozietateak ibilgetuaren kontabilitateko balio garbia ebaluatzen du, aktiboen balioan narriaduragatiko galerak izan diren egiaztatzeko. Ebaluazio horren ondorioz ondasunaren balio bihurgarria kontabilitateko balio garbia baino txikiagoa bada, narriaduragatiko galera erregistratzen da galdu-irabazien kontuan, «Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» epigrafean, eta ondasunaren kontabilitateko balio garbia balio bihurgarrira murrizten da. Ondasunaren balio bihurgarria merkatuan bihurtzeko duen balioaren eta duen erabilera-balioaren arteko balio handiena da. Erabilera-balioa zehazteko, deskontatu egin behar dira kutxako

fluxu zenbatetsiak, egungo balioa zehazte aldera, arrazoizko interes-tasak erabilita.

2019ko ekitaldian, sozietateak 45.860,50 euroko galera izan du (8.740,25 euro aurreko ekitaldian) ibilgetu materialaren narriaduragatik, hainbat elementu zegokien bizitza baliagarri zenbatetsia amaitu baino lehen ordeztu behar izan baitira.

## d) Finantza-tresnak

*I Aktibo finantzarioak*

Eskuratzen direnean erregistratzen dira aktibo finantzarioak egoera-balantzean; hain zuzen ere, haien arrazoizko balioa erregistratzen da, eragiketaren kostuak barne.

Honela sailkatzen ditu sozietateak bere aktibo finantzarioak:

<u>Maileguak eta kobratzeko partidak</u>: sozietateak sortzen ditu, ondasunak saltzetik edo enpresaren trafiko-eragiketetan zerbitzuak ematetik. Kategoria honetako aktibo finantzarioak arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira balantzean erregistratzen direnean; hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Ondoren, «kostu amortizatuaren» arabera baloratzen dira, interes-tasa efektiboa erabilita. Hornidurak erregistratzerakoan, kobratzeko kontuetatik ustez berreskuratuko den zenbatekoaren eta kontuek kontabilitatean duten balioaren arteko diferentzia hartzen da aintzat. Ustez berreskuratuko den zenbatekoa eragiketaren jatorrizko interes-tasa efektiboan deskontatzen da.

<u>Negoziatzeko mantentzen diren aktibo finantzarioak</u>: epe laburrean saltzeko asmoz eskuratutako aktibo finantzarioak sartzen dira hemen. Ondoren, arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, eta, hala badagokio, arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira. Kategoria honetan sailkatzen dira, besteak beste, epe laburrerako finantza-inbertsioak.

<u>Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak</u>: hauek sartzen dira eskudiruari eta bestelako aktibo likido baliokideei dagokien kategorian: kutxako eskudirua; kreditu-erakundeetako ageriko banku-gordailuak; eta likidezia handiko epe laburrerako beste inbertsio batzuk, baldin eta jatorrizko epemuga gehienez hiru hilabetekoa bada eskuratu zirenetik.

*II Pasibo finantzarioak*

Zorrak eta ordaintzeko partidak: sozietateak baditu era honetako pasibo finantzarioak, eta ondasunak saltzetik edo enpresaren trafiko-eragiketetan zerbitzuak ematetik sortu dira. Hemen sartzen dira, baita ere, jatorri komertziala izan gabe, finantza-tresna deribatutzat jo ezin direnak.

Zorrak eta ordaintzeko partidak baloratzeko, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa hartzen da aintzat, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuen arabera doituta. Ondoren, dagokien kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira pasibo horiek.

Arrazoizko balioaren arabera baloratzen diren eta galdu-irabazien kontuan aldaketak eragiten dituzten beste pasibo finantzario batzuk: pasibo horiek pasiboen kategoria honetan sartu dira hasierako erregistrotik, baldin eta haien arrazoizko balioa fidagarritasunez zenbatets badaiteke. Arrazoizko balioan agertzen dira egoera-balantzean, eta balio horren gorabeherak galdu-irabazien kontuko «Finantza-gastuak» eta «Finantza-sarrerak» epigrafeetan erregistratzen dira, dagokionaren arabera.

*III Ondare-tresnak*

Ondare-tresna da, pasibo guztiak kendu eta gero, sozietatearen ondareari lotutako hondar-partaidetza bat.

Sozietatearen kapitaleko tresnak jasotako zenbatekoarekin erregistratzen dira ondare garbian, jaulkipen-gastuak kenduta.

**e) Mozkinen gaineko zergak**

Ekitaldi bakoitzeko mozkinen gaineko zerga ordaintzeagatiko gastua zergak aplikatu aurreko emaitza ekonomikoaren arabera kalkulatzen da. Zer dagokion, gastu hori handiagoa edo txikiagoa izango da emaitza fiskalarekin egoten diren diferentzien arabera; hau da, zerga-oinarriaren eta zergak aplikatu aurreko kontabilitateko emaitzaren arteko diferentzien arabera. Diferentzia horiek ez dute eraginik hurrengo denboraldietan.

**f) Diru-sarreren eta gastuen kontabilizazioa**

Ondasunen salmentak eta emandako zerbitzuengatiko diru-sarrerak erregistratzerakoan, ez dira barnean hartzen eragiketa horiei dagozkien zergen zenbatekoak, eta kendu egiten dira deskontuak, eragiketaren zenbateko txikieneko gisa, fakturan sartuta egon ala ez.

Gero saltzeko erosten diren salgaien eta gainerako ondasunen gaineko zergen zenbatekoak (BEZ edo balio erantsiaren gaineko zergari dagokiona kenduta), baita zuzenean eragiten dieten garraioko zergenak ere, eskuratutako ondasun edo zerbitzuen balio handieneko gisa erregistratzen dira.

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira.

Diru-sarrerak kalkulatzeko, kobratu den edo kobratzeko dagoen kontraprestazioaren arrazoizko balioa hartzen da aintzat. Ohiko jardueraren barruan emandako ondasunen edo zerbitzuen truke kobratzeko dauden zenbatekoak dira diru-sarrerak, deskontuak, BEZ eta salmentekin erlazionatutako bestelako zergak kendu eta gero.

Ondasunen salmentak erregistratu ahal izateko, arrisku eta mozkin guztiek eroslearen esku egon behar dute.

Zerbitzuak emateari lotutako diru-sarrera arruntak balantzearen datan zerbitzuak zer heinetan eman diren aintzat hartuta ere erregistratzen dira, baldin eta transakzioaren emaitza fidagarritasunez zenbatets badaiteke.

Interesen ondoriozko diru-sarrerak aldi baterako finantza-irizpide bati jarraikiz sortzen dira, kobratzeko dagoen printzipalaren eta aplikagarria den interes-tasa efektiboaren arabera. Tasa horrek aktibo finantzarioaren bizitzan zehar espero den eskudirua eta aktibo horren kontabilitateko zenbateko garbia berdintzen ditu.

**g) Kaleratzeengatiko kalte-ordainak**

Lan-arloko indarreko araudiaren arabera, Espainiako erakundeek nahitaez eman behar diete kalte-ordaina arrazoi egiaztaturik gabe kaleratzen diren langileei. Ez dago arrazoi objektiborik kontzeptu honetarako hornidura bat kontabilizatzea beharrezkoa egiten duenik.

## h) Errentamenduak

Errentamendu operatiboetan, sozietatea errentaria izanik, aparkalekua eta aretoak errentan emateko kontratuen ondoriozko diru-sarrerak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, «Negozio-zifraren zenbateko garbia» epigrafean.

## i) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Epigrafe honetan jasotzen dira erakunde publikoek Elkargunea finantzatzen laguntzeko emandako kapitaleko diru-laguntzak.

Kapitaleko diru-laguntzei dagokienez, sozietateak irizpide bera aplikatzen du beti; alegia, ekitaldi bakoitzeko emaitzetara transferitzen ditu, linealki, diru-laguntza horiek, diruz lagundutako aktiboen bizitza baliagarri zenbatetsiko urteetan zehar. Kontzeptu horren bidez ekitaldi bakoitzeko emaitzan sartzen den zenbatekoa erantsitako galdu-irabazien kontuko «Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapitaleko diru-laguntzak» epigrafean erregistratzen da.

Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak kontabilizatzeko, irizpide hauei jarraitzen die sozietateak:

1. Itzuli behar ez diren kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak: Emandako zenbatekoaren edo ondasunaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira, diruzkoak diren ala ez, eta emaitzei egozten zaizkie, diruz lagundutako elementuei buruz aldi horretan egindako amortizazioaren horniduraren proportzioan, edo, dagokionean, besterentzen edo narriaduragatiko balio-zuzenketa egiten denean, salbu eta bazkideengandik edo jabeengandik jasotakoak badira, haiek zuzenean funts propioetan erregistratzen baitira, ez direlako diru-sarrerak. Salbuespen hori ez da aplikatuko sozietatea sektore publikokoa denean edo sozietateak interes orokorreko jarduerak sustatzen dituenean.

2. Diru-laguntza itzulgarriak: Itzulgarriak direnez, pasibo gisa kontabilizatzen dira.

3. Ustiapeneko diru-laguntzak: Emaitzetara ordaintzen dira ematen diren unean, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita finantzatzera bideratzen badira, orduan ekitaldi horiei egotziko baitzaizkie. Gastu jakin batzuk finantzatzeko ematen badira, finantzatutako gastu horiek sortu ahala egotziko dira.

## j) Deribatuak eta estaldura-eragiketak

Sozietatearen politika da finantza-tresna deribatuak ez erabiltzea, ezta estaldura-eragiketak egitea ere.

## k) Ingurumenean eragina duten enpresa-jardunak

Sozietatearen ohiko jarduerak ingurumenean izan dezakeen eragina desagerraraztea, mugatzea edo kontrolatzea helburu duten sistemak, ekipoak eta instalazioak erosteko egindako kostuak ibilgetuko inbertsio gisa hartzen dira.

Ingurumenarekin erlazionatuta dauden gainerako gastuak (ibilgetuko elementuak eskuratzeko egindako ez beste gastuak) ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Ingurumeneko hornidurak, hala badagokio, itxiera-datan sor daitezkeen edo ziurrak diren ingurumeneko gastuak dira; ez dakigu, ordea, gastu horien zenbateko zehatza, ezta noiz sortuko diren ere. Ondorioz, hornidura horien zenbatekoa, hala badagokio, itxiera-datan dagoen informazioaren arabera egin daitekeen kalkulurik onenari dagokio.

## 5.- <u>IBILGETU IMMATERIALA</u>.-

2019ko eta 2018eko ekitaldietan, mugimendu hau izan da egoera-balantzearen epigrafe honetan (eurotan):

| | Euroak | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Saldoa (2017/12/31) | Sarrerak edo zuzkidurak | Ateratzeak | Besterentzeak | Saldoa (2018/12/31) | Sarrerak edo zuzkidurak | Ateratzeak | Besterentzeak | Saldoa (2019/12/31) |
| **Kostua:** | | | | | | | | | |
